

B ERANSKINA:

EZKER ABERTZALEAREN ERRADIOGRAFIA

SORTU

SORTUren Eratze Prozesua, Ezker Abertzaleko militantzia osoak 2012-2013 urteetan, hamalau hilabetez, luzatu duen auzolan politiko ireki, kolektibo eta parte hartzaile erraldoiaren emaitza izan zen.

Eratze prozesuan harturiko **erabaki eta eztabaida gai nagusiak** hauek izan ziren.

I. Oinarri Ideologikoak - ERABAKI NAGUSIAK:

1. SORTU Ezker Abertzale osoaren erreferente politiko nazional nagusia izango da.
2. SORTUK bere egiten ditu Ezker Abertzalearen helburu estrategiko historikoak, independentzia, sozialismoa, euskalduntasuna eta, hemendik aurrera, feminismoa.
3. SORTUrentzat, Euskal Estatuak, Euskal Errepublikak, gure ereduak gauzatzeko eta bermatzeko tresna da.
4. SORTUrentzat, masa borroka, herritarren borroka, lehentasunezko lanabesa da, borroka ideologikoa funtsezkoa eta borroka instituzionala ezinbestekoa.
5. SORTUK garapen eredu propioa eraikiko du, eredu sostengarria deritzana gaindituz.
6. SORTUK beste jatorri eta identitate batzuetako pertsona eta kolektiboak gure borrokaratik erakarririk, nazio eraikuntzan eta eraldaketa sozialerako prozesuan benetan integratuz.
7. SORTUK bere burua antimilitaristatzat jotzen du. Indar okupatzaileen aurrean, Alde hemendik! aldarrikatzen du eta Euskal Estatuak ejerzitorik ez duela izango baieztatzen du.
8. SORTUK homofobiaren, xenofobiaren eta arrazakeriaren aurka borrokatuko du eta Estatu laikoa sustatuko du.

II. Ildo Politikoa- ERABAKI NAGUSIAK:

a) Ildo politikoaz:

1. Ildo Politikoaren elementu nagusiak dira estrategia politikoa, taktika politikoa, konfrontazio demokratikoa, gatazkaren konponbidea eta nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala.

b) Estrategiaren oinarriez:

2. Klase borrokak Askapen Nazional eta Sozialerako borrokaren forma eta edukia hartzen ditu. Langileria eta herri sektoreak babestuko dituen eta gure eskubide nazional eta sozialak itzuliko dizkigun euskal marko nazionala aldeztu dugu.
3. Konfrontazio demokratikoko strategiaren eskutik, aldeakartasunez, prozesu demokratikoa ireki dugu.
4. Desobediencia zibil eta politikoa, nazio eraikuntzan eta eraldaketa sozialean aurrera egiteko borroka tresna da, herri boterea Estatuaren boterearen aurrez aurre jartzeko alternatiba da.

c) Estrategia garatzeko Taktika Politikoaz:

5. Taktika politikoa estrategia politikoa garatzea ahalbidetzen duen elementu dinamikoa da, urrats mailakatuak, indar metaketa eta egindako aurrerapenekin kontsekuentea izango den aliantza politika errazteko.

d) Gatazka politikoaren konponbidez:

6. Gatazka elkarrizketaren, negoziazioaren eta akordio politikoaren bidez konpontzeko eskaintza egin du beti, konponbide demokratikoaren subjektua eta hartzailea euskal herritarrek izan behar direla aldarrikatuz. Aldebakarreko urratsak egin eta hainbat ekimen bultzatu ditu eta horretan sakonduko dugu.

III. Antolaketa eta Funtzionamendua - ERABAKI NAGUSIAK:

a) Antolaketaren ezaugarriez:

1. Barne mailako demokrazia parte-hartzaile iraunkorra, euskararen lehentasuna eta partaidetza parekidea.

b) Militantziaren ereduaz:

2. Militantziaren eredu berria, dinamizatzaile soziopolitiko izaera, herri sektore ezberdinen arteko elkarlana eta auzolana bultzatuko duena. Militantez gain, beste multzo zabal batek osatzen du SORTU: oinarri sozialak. Militantea, SORTUko egituraren zein herri

erakunde ezberdinetan iraunkorki lanean diharduena da eta, nola ez, kuota ordaintzen du "Sortukidea" delako. Dena dela, SORTUren egitasmoarekin bat egiten duten oinarri sozialeko kide guztiek ere kuota ordaindu beharko lukete, beraien kasuan borondatezkoa bada ere, militanteen kasuan, ezinbestekoa delako.

c) Hiru borroka moldeez:

3. Hiru dira garatuko ditugun borroka esparru eta molde nagusiak: Masa borroka, Borroka ideologikoa eta Borroka Instituzionala, azken hau, aliantza instituzionalaren bidez garatuko badu ere. Hauek izango dira SORTUren antolaketa ereduaren bizkarrezurra. Borroka esparru horien baitan landuko dira SORTUren lan ildo nagusiak, alegia, Nazio Eraikuntza/Eraldaketa Soziala eta Gatazkaren Konponbidea.

d) Barne funtzionamenduz:

4. Egitura erabakitzaileak eta proposatzaileak izango ditu SORTUK. Bestetik, funtzionamendu berria ezaugarrituko duten hiru elementu izango ditu SORTUK oinarrian: parte hartze kolektiboei begirako bitartekoak, Batzar Nazionalaren dinamika ugaritzea eta Eskualdeak politikaren aplikaziorako esparru bilakatzea.

e) Barne korronteez:

5. SORTUK ez du barne korronte antolaturik onartuko. Espazio politiko ezberdinak onartuko dira, baina ez dira espazio gisara zuzendaritza organoetan ordezkaturik egongo.

f) Berme Batzordeaz

6. Berme Batzordeko kideak, dekalogoia edota Barne Arautegia, Kontseilu Nazionalak proposatuko ditu, herri batzarretan eztabaidatua eta onartua izan beharko dute, Batzar Nazionalan azken oniritzia eman aurretik.

g) Politika Feministaren arduradunetz

7. Politika Feministan bermatzeko Barne Plana osatu eta bideratuko da.

h) Ipar Euskal Herriko SORTUren prozesuaz

8. SORTU erakunde nazionala da. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko Kontseiluak osatu dira eta, Kontseilu Nazionalerako ere bost esparru hauetako kideak hautatuak izan dira. Ipar Euskal Herriko SORTUren eratze prozesu osoa datorren 2014ko neguan amaituko da.

BALANTZEA

Eranskin honetan ez gara luzatuko jada txosten nagusian funtzionamendu eta praktikari buruz egin diren irakurketetan.

Barne antolakundearen azterketa zehatza eginez gero ondorioztatu dezakegu SORTUren hedapen maila zabala dela Euskal Herri luze zabalean. Egiturak eskualde guztietan eta demografikoki handienak diren auzo eta herri ia guztietan ditugu eta egiturarik ez dagoen herri txikienetan ere kontaktu eta bitartekari funtzioa betetzen duten kideekin iristen gara.

Borroka molde ezberdinei erreparatuz urte hauetan garatu dugun lanaren ondorio izan dira gaur egun borroka eta eremu ezberdinetan lanean ditugun militanteak:

Borroka instituzionala:

Eremu instituzionalak garrantzi handia izan du. Euskal Herriak bere etorkizuna libreki erabakitzera eramango gaituen bidean, instituzioak ere gako horretan kokatzen saiatu gara proiektu politiko ezkertiar eta abertzalearen alde indarrak biltzeko eta gure alternatiba garatzeko, beti ere masa borrokari begira, baita gure instituzioak bultzatu eta garatzeari begira ere. Euskal Herriko beste eragile ezkertiar soberanista eta abertzaleekin indarrak bilduz, ahalik eta babes elektoral eta indar instituzional handiena lortzea izan dugu helburu, hortik ere gure proiektu politiko eta soziala errealitate bilakatzeko.

SORTUK koalizioaren baitan garatu du lan instituzional hori. Eremu honetan eragiteko tresna nagusiak EH Bildu eta EH Bai ditugu. Bi tresna horien bitartez 1200 militantetik gora ditugu lanean (zaila da jakitea zenbat Sortukoak direnak), honela banatuta:

- Europar Parlamentuan: 1
- Madrilgo Kongresuan: 2
- Gasteizko legebiltzarrean: 21
- Nafarroako parlamentuan: 8
- Arabako BBNN: 11
- Bizkaiko BBNN: 11
- Gipuzkoako BBNN: 17
- Udal hautetsiak: 1203 hegoaldean eta 200 inguru IEHan

Masa Borroka:

Herri edo auzo batean egin behar den jarduera politiko guztia ahalik eta egokien egiteko eta uztartzeko oso egitura zabalak eta irekiak behar ditugu. Gure helburu nagusietakoa konpromiso maila desberdinak hartuko dituzten ahalik eta kide gehien lanean jartzea izan da. Horretarako kidegoa saretu eta egitura malguak eta irekiak eskaintzen saiatu gara. Burututako ibilbidean Sarea astetik astera handitzen joan da -zorionez!- eta 2016ko urtarrileko datuen arabera Saretu kopurua, orotara, 478 lagunekoa da. Horietatik, 67 kide arlo bakar batean daude saretuta; gainontzeko 391k bi arlotan dihardute lanean.

Herrialdeka, honela banatzen dira 478 saretuak:

- Araba: 72
- Bizkaia: 147
- Gipuzkoa: 195
- Nafarroa: 64

Eta arloka hau da banaketa (esan bezala pertsona bat gehienez bitan egon daiteke):

- Sozioekonomia: 341
- Politika feminista: 58
- Hizkuntza: 78
- Hezkuntza: 103
- Kultura: 55
- Aniztasuna: 34
- Osasuna: 30
- Kirola: 6

Borroka ideologikoa:

SORTUrentzat borroka ideologikoa lehentasunezko borroka eremua gisa definitu genuen, masa borrokarekin eta borroka instituzionalarekin batera, eta ideologia hegemoniko eta dominatzaileari nagusitzea izan du helburu. Borroka Ideologikorako Guneak **Formakuntza** atala eta **barne zein kanpo Komunikazioa eta Prentsa lana** barnebildu ditu.

Lana bi zutabe nagusitan banatuko genuen: bata, barnera begirakoa -formakuntza eta komunikazioa-; bestea, kanpora begirakoa -komunikazioa eta prentsa-. Borroka Ideologikoaren helburua, formakuntzaz gain, SORTUren ildo politiko orokorra zein Masa Borrokarako Guneetik egiten diren ekarpenak militantziaren baitan eta jendartean zabaltzea eta indartzea izan da.

Bistakoa da arlo honetan ez dela bezain beste inbertitu. Formakuntza eta barne komunikazio arloan batik bat hutsegin dugu eta ez dira behar besteko bitartekorik eskaini.

LAB sindikatua

Sindikatuaren babesa eta presentzia indartu egin da azken urteetan. 2008tik gaur arte hazkundera orokorra izan da (EAEn %17tik %19ra, Nafarroan %12tik %14,75era; Ipar Euskal Herrian prud'homme bat izatetik lau izatera).

Momentu honetan, LABek 4115 delegatu ditu Hego Euskal Herrian. Gipuzkoan 1584, Bizkaian 1260, Araban 395 eta Nafarroan 876. Industrian 1545, Zerbitzu publikoetan 1306 eta zerbitzu pribatuetan 1264. %35 emakumeak.

Emakumeen parte hartzea indartsua da sektore publikoetan (%55); handitzen doa sektore feminizatuetan (ordezkarien %44). Baina oraindik zailtasunak ditugu sektore oso maskulinoetan emakumeei dagokien ordezkari maila eskuratzeko (industrian emakume ordezkariak ez dira %10era iristen).

Afiliazioari dagokionez: Azken urteetan lanpostuen suntsiketa nabarmena izan da (%10) eta gora beherak ikaragarriak izan dira. Hala bada ere, 40000ren langa pasa genuen eta ez gara hortik jaitsi: Araba: 4715 Bizkaia: 14435 Gipuzkoa: 13165 Nafarroa: 6635. %40,17 Emakumeak.

400 bat pertsonak osatzen dugu LABen egunerokoa ziurtatzen duen egitura. Horietatik sindikatuaren soldatapekoak ez dira erdira iristen.

- Jendea multzo ezberdinetan dago banatua. Multzo nagusia interbentzioaren eremuan dago, zuzendaritza organo ezberdinetan 50 eta esku hartze markoetan 250. Bigarren multzoa aparatoek osatzen dute. Hirugarren multzoan eginkizun teknikoak daude.
- Zuzenean langileekin lan egiten dutenak sindikatuari begira egiten dutenak baino gehiago dira, eta aldea handitu egin da krisiari eman erantzunaren ondorioz. Bi funtzioetan banatzen dira: ekintza sindikala, aholkularitza.
- Interbentzioari buruzko erabaki politikoaren arduradunek lotura edo harreman zuzena dute delegatuekin.

Bi barne plan estrategiko ditugu, bata euskalduntzea eta bestea parekidetasuna helburu.

Bukatzeko, eredu sindikal burujabe bat edukitzeko gauza erabakigarria sindikatuaren finantziarioa da, lan handia egin da hori ziurtatzeko. LABen Egiturazkoa gastuen %95 afiliazioaren bidez autofinantziatzen dira eta 100% iristeko neurriak hartu dira. Gastu estrukturalak sarrera propioen arabera erabakitzen dira; dirulaguntzak gastu korranteetarako erabiltzen dira. Eta zorpetzea murriztu dugu azken urteetan, orain aurrekontuaren %2 suposatzen dute. Instituzioen menpe egotea bezain kaltegarria da sistema finantzarioaren menpe egotea.

ERNAI

Ernai gazte antolakundea 2013ko Martxoaren 2an jaiotzen da, aurrez, 6 hilabete iraungo duen Gazte ZukGua prozesua burututa.

Ilegalizazio fase gogor baten ondotik Ezker Abertzalearen baitan gazte eremua antolatzeko dagoen hutsunea betetzera dator gazte antolakundea. Testuinguru hartan honako faktore nagusiak izan dira ondorengo urteak gehien baldintzatu dituztenak:

- Ilegalizazio aroaren ondorioak. Militantzia kultura oso zurrun eta itxia. Jardun militante oso konkretua. Gazteriarekiko urruntze handia. Kriminalizazioa. Errepresioaren ondoriozko belaunaldi haustura... izan dira besteak beste ondorioak.
- Gazte estrategiaren berregokitzea fase politiko berrira. Errepresio-erantzun dinamikan iltzatua eta errotua egon den gazte belaunaldia eta gazte borrokaren paradigma (gazteriaren baitan oso errotua), berregokitu eta eraikuntza gakoetan oinarrituriko estrategia diseinatu, sozializatu eta garatzeko ardura.
- Gazte mugimenduaren ahulezia. Gazte borrokarik apenas zegoen eta existitzen zenak ez zion erantzuten gazte problematikari.
- Gazteriaren errealtate soziologikoa. Azterketa sakona beharko lukeen arrear gazteria oso indibidualista eta atomizatua, kontsumo gizartean errotua, gizartearekiko konpromiso txikiarekin eta politikarekiko desatxikimendu eta urruntasun handiarekin. Komunikabideen aroan jaiotako gazteria dela esan genezake berehalako kontsumo efimeroan hezia.
- Ezker Abertzalearen berrosatzea. Ezker abertzalean inolako orube komunik ezarri gabe ezker abertzalea berregituratzea, bakoitza bere bidetik, hausnarketa propioekin eta koordinatzeko zailtasun handiekin.

GAZTE ESTRATEGIAREN OINARRIAK

Gazte boterea artikulatzea izan da gure buruari ezarritako xedea; **gazteria ahaldundu eta burujabetzaren aldeko gazte masa eraikitzea**. Horretarako gazte antolakundean elkar elikatzen diren bi zeregin nagusi ditugu; batetik, Ernairi propioki dagokiona (batez ere proiektu politikoari erantzuten diona), eta bestetik, gazte mugimenduko gainontzeko espresioekin elkarlanean egin beharrekoa (GMaren baitan dugun ardura, txinaurri lana).

Aipaturiko gazte botere hori eraikitzeko **gazte mugimendu indartsu bat izatea ezinbestekoa** izango da. Gaur egun, azken urteotan gainbeheran egon den gazte mugimendua apurka apurka aktibatzen ari dela esan dezakegu. Bepizte bat ari da ematen eta bepizte horren emaitza izaera berri bat izango duen gazte mugimendua izango da, egungo errealtateari egokitua. **Hots, honako ezaugarriak izango dituen gazte mugimendua:**

- Ahalik eta gazte gehien batuko dituen
- Anitza, borroka ezberdin asko barnebiduko dituen (herri bat hamaika borroka)
- Burujabetza aterabide integral bezala barneratuko duena (besteak beste 5 zapalkuntza nagusiei aurre egiteko: amalurra, genero, nazio, klase eta helduen boterea)
- Eraikuntza klabeen jardungo duena burujabetza praktikan jarriz, autogestioari ekingo diona. Alternatibak martxan jarriz eremu guztietan (bizitzako esparru guztietan; aisialdia, hezkuntza, lana, etxebizitza...)
- Egungo marko juridikoa eta mugak gainditzeko anbizioa izango duena -gu bagoaz-, desobedientzia tresna bezala ulertuz
- Gazte kontzientzia barneratua izango duena; gazte problematika eta gazte izaera (kolektiboaren parte sentitzea)

Garatzen dihardugun gazte estrategia modu eraginkorrean aurrera eramateko faseetan banatu genuen.

Gazte boterea eraikitzeko gazte mugimendu indartsu bat izatea ezinbestekoa dela esan dugu, baina errealitatea bestelakoa da gazte mugimenduaren gainbehera batetik baiktatz. Beraz, **lehendabizi indar gehienak gazte mugimenduarekin egin beharreko lanean jarri ditugu (eta ez Ernaien praktika propioan)**, hau izanik lehen urteetako lehentasuna.

Gauzak honela, 2013an Ernai sortu zenetik **lehen urratsa eta beraz lehentasun nagusia, gazteak aktibatu eta borroka espazioak sortzea izan da**, oso ahul zegoen gazte mugimendua berpiztea.

Honek ez du esan nahi lehentasun ez den ezer ez dugula egin, inondik inora. Aitzitik, paraleloki Ernaik bere lanketa propioak egin behar ditu baina gaur gaurkoz lehentasuna gazte mugimenduan jartzen dugu (une honetan, zehazki, aktibazioan eta espazioen sorreran).

Denborarekin faseak gainditu ahala lehentasunak ere aldatzen joango gara. Zentzu honetan 2015-2016 ikasturtea trantsizio urte bezala zehaztu dugu. Ikasturte honetan, berpizten ari den gazte mugimenduaren lehertzearen irudikapena eta gazte borrokaren paradigma berria hedatzea, mahaigaineratzea, izango dira trantsizio urtea ezaugarrituko dutenak.

Aurrera begira, gazte mugimendu berpiztuaren lehen oinarriak ezarri eta gazte borrokaren paradigma berritua mahaigaineratu eta hedatu ondoren estrategia berrikusteko unea izango da. Batetik, lau urtetan egindako garapenaren balorazioa eginda, eta bestetik, Abian prozesuaren ondorioak aintzat hartuta datorren zikloaren zehaztapena eta gazte estrategiaren birformulazioa egingo genuke. Urrats hauek betiere garapen logika gradual batean ulertuta eta gazte zikloen faktorea aintzat hartuta, gazte borrokaren izaera ziklikoaren baitan zehaztuko genituzke.

MILITANTEON JARDUNA

Gazte mugimenduaren parte garen heinean bertan eragiteko betebeharra dugu. Dinamizazio politikoa, hitzak berak dioen bezala, dinamismoa ematea da, akuilu lana egitea, hain zuzen. Gazteriarekin lan egin eta elkar entzunez, gainontzeko gazte eragileetan era aktiboan parte hartuz eta Ernaitik harago gazteriaren problematikak jorratuz. Honela, ideologia, konpromiso edo interes ezberdinak dituzten gazteekin lan egitean, batetik gu geu aberasten gara ikuspuntu eta kritika ezberdinak jasoaz; eta bestetik gure proiektu politikoa bera indartzen dugu. Guzti hau dirigismoak baztertuz, umiltasunez, zintzotasunez, errespetuz eta beti ere borrokak interes partikularren (behar koiunturalak edo Ernaien behar konkrituak) gainetik lehenetsiz garatuko dugu. Praktika honi Txinaurri lana deitu diogu.

Txinaurri lanaren baitan **bereziki azpimarratzekoa da harremanek duten garrantzia berezia** bai une honetan ditugun helburu konkretuei begira baina baita aurrera begira ere. Fase honetan gazte borrokak pizten ari gara eta horretarako ezinbestekoa da gazte ezberdinekin egotea. Gazteak aktibatu nahi baditugu, norbanako zein sektore ezberdinekin garatuko ditugun harremanak determinanteak izango dira; hala, gazteekin egotea, beraiekin batera elkarlanean ekimen ezberdinak antolatzea, beraien gogoak xaxatzea, izango delarik gure lehentasunezko eginbeharra. Egungo askapen prozesuak eskatzen duen militantzia ereduan oinarritzakoa faktorea izango da harremanak garatzea. Papera eta boligrafoa edota pote bat eskuan baina gazteekin hitz egin behar dugu, militante kideez harago etengabe egon behar gara gazteekin harremanetan. Orain arteko harreman sareak zabalduz ahalik eta eremu guztietara, harremanak ere perspektiba iraultzailean ulertuz. Hortik sortuko dira dinamikak, borrokak eta planteamendu ezberdinak, hori baita gazteak borrokara batzeko biderik eraginkorrena.

GAZTE ESTRATEGIAREN MARKO TEORIKOA

Askapen prozesuaren fase honetako erronka nagusia prozesu eratzaillea garatzea izanik, gazte gisa ekarpena egin eta norabide berean kokatzea ezinbestekoa dugu; ez soilik Herri honen biziraupena delako jokoan dagoena, baizik eta gazte bezala askatuko gaituen aukera bakarra delako. Gazteok kolektibo propioa eta berezitua osatzen dugu zapalkuntza oro modu berezitua pairatzen dugulako. Eta hau ez da kasualitatea, helduen boterearen ondorio baizik: sistemak bere biziraupenerako beharrezkoa du gazteria alienatu eta sumisoa, eta horretarako helduen botere harremana erabiltzen du.

Bagoaz. Baina zergatik?

Errealitatea iluna da oso, prekariedade iraunkorrera kondenatu gaituzte. **Sistema kapitalista heteropatriarkalak gazteontzat ez dauka ezegonkortasuna eta pobrezia ez den bestelako eskaintzarik.** Ikasketak egitea geroz eta garestiagoa da, jakintza elitizatzeke apustuarekin aurrera jarraitzen dute, emakumeenganako erasoak egiturazkoak dira, langabezia eta lan baldintzen okertzea areagotuz doa... duintasunez bizitzea gaur gaurkoz amets bat da gazteontzako. Prekariedadearen mamua gutxi balitz, **Estatu espainiar eta frantsesak gure izena eta izana ukatzen digute,** gure hizkuntza eta kultura desagerrarazteko estrategia oso bat dute.

Oraindik egongo da “bagoaz!” diogunean zergatia galdetuko diguna. Argi eta garbi, eta baita ozen baino ozenago erantzuten dugu: **bagoaz ostu diguten oraina berreskuratu eta etorkizun duin bat nahi dugulako**. Espainian eta Frantzian gazteok zapalduak garelako. Bagoaz burujabe izan nahi dugulako, geure erabakien jabe. Eta honen aurrean irtenbide duin bakarra gelditzen zaigu: emantzipazioa. Emantzipazioa gazte bezala, langile bezala, emakume bezala, Herri bezala.

Ados, bagoaz... Baina nola?

Prekariatetik ihes egiteko bidea ez dugu egun batetik bestera egingo, eta ondorioz, **burujabetza ezin dugu ulertu garaipenaren egunean gertatuko den zerbait bezala. Aitzitik, eskailera bat bezala irudikatu beharko genuke, koskaz koska burujabetza mailak irabaziz joan behar gara**. Esaterako, gurasoen etxetik alde egitean burujabetzan koska bat igo dugula esan genezake, lantegian lan eskubideak borrokatu eta irabaztean beste bat, emakume gisa errespetarazten gaituztenean beste bat... eta horrela amaierarik gabe baina burujabetza osorantz hurbilduz.

Prozesu hau izango da benetan prekariatetik askatuko gaituena, eta bizitzako alor guztietan garatu dezakegu. Lan munduari dagokionean, familia eta lagunei dagokionean, kontsumo ohituretan, etxebizitzari dagokionean... bizitzako esparru guztietan joan behar gara burujabetza mailak handitzen. Horretarako **eremuz eremu piztu behar ditugu borrokak**. Herri bakoitzean hamaika borroka desberdin, arnas luzekoak batzuk edota problematika zehatzari erantzuteko epe laburrekoak beste batzuk.

Pizten ditugun borrokek zein ikuspegi duten ere argi izan behar dugu. Badira **baldintzak hobetzeko borrokak**; autobusen tasak edo langabezia aurkako borrokak adibidez. Beste batzuk **norberaren eta kolektiboaren baloreak eraldatzeko borrokak** izaten dira; boikot kanpainak, musika herrikoien aldekoak, kirolaren irakurketa iraultzaileak proposatzen dutenak... Eta badaude, baita ere, egungo sistemaren baitan **alternatiba praktikoak gauzatzeko borrokak**, bere mugekin baina sisteman arrakalak sortu eta aldi berean beste mundu bat posible dela erakusten dutenak; alokairu sozialeko etxebizitzak, ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarrituriko kooperatibak, gaztetxeak...

Burujabetzaren aldeko bidea norbanakotik abiatzen da baina horrek ez du esan nahi kapitalismoak nahiko lukeen bezala onura pertsonalen aldeko jarrera izan behar dugunik. Komunitatean bizi gara eta komunitate horretan guztiok orekan bizi ezean elkar zapaltzen egongo gara. Ez baitago pribilegiaturik zapaldurik gabe.

Garrantzitsua da beraz ikuskera kolektibo hori ez galtzea. **Gazteok antzeko arazoak ditugula ulertuz batera ekin behar diogu, bakoitzak bere eremutik baina guztiok itsasontzi berean gaudenaren kontzientziarekin.**

Herri bezala ere gauza bera esan dezakegu, **gure komunitate txikitik burujabetza mailak handitzen hasten bagara Euskal Herriko txoko guztietan, pixkanaka, Euskal Herri osoa aldatzen egongo gara**. Urratsak ematen Euskal Herri aske eta burujabe baterantz.

Bagoaz. Eta norabidea zein den badakigu!

Pertsona askez osaturiko Herri askea. Independentzia, sozialismoa eta feminismoa. Iparra argi dugu, burujabetza osoa lortzeko bidea da gurea. Baina esan bezala, burujabetza ez da etzi lortuko dugun zerbait. Burujabetza lortzea prozesu bat da, gutxika botere guneak irabaziz egingo duguna.

Botere-guneak lortzeko, **lehen urratsa espazio askeen aldeko borroka piztea izango da.** Helduen boteretik urrun, patriarkatuaren eraginarekin apurtuz, kapitalismoaren logikari aurre eginez, espazio askeak eraiki behar ditugu. Batzuetan, espazio fisikoak izango dira, alternatiba baten bueltan eraikiak: gaztetxea, emakumeon etxea, herri unibertsitatea, lanaren autogestiorako eremua, alokairu sozial edota okupatutako etxebizitzak... Bestetan berriz, zapalkuntzarik gabeko arnagune txikiak izango dira, gure irudimenaren araberakoak: ostegunetako pintxopote more eta euskalduna, Lomcerik gabeko klaseak, nortasun agiri espainol eta frantsesari uko egiten dion gazteen sarea, euskara hutsean hitz egiteko eremuak...

Eta norabidea zehaztua dugun bezala, jakin badakigu **guzti hau autogestioaren bidetik** egingo dugula; kontzeptu zahar bezain aberatsa da autogestioarena, gazte mugimenduan errota dagoen kontzeptua. Gazteok gazteontzako egina. Gaurdaino, autogestioa bestelako eredu bat posible dela ikustarazteko garatu dugu, gaztetxeak bezalako guneak autogestionatuz besteak beste, kontzeptu hau ordea gure bizitzetan egunerokoan txertatzen badugu burujabeago izango gara. Adibidez, lan munduan edota aisialdian ditugun beharizanak autogestioaren bidez gure kabuz asetzean, betiere balore askatzaileetan oinarrituz, burujabeago izango gara. Lanaren eta aisialdiaren adibideak agertu badira ere ezaguna zaigun kontzeptu honekin bizitzako alor guztietan urrats ugari eman ditzakegu. Gazteok gure bizitzen jabe egin behar gara, kapitalismoak lapurtu dizkigun espazioez birjabetu behar gara. Ekoizpenean, kontsumoan, distribuzioan, zaintza lanetan... logika komunitario batean oinarriturik, proiektu autogestionatu, sozial eta kolektiboak bultzatu behar ditugu.

Eta hor dago galdu behar ez dugun ikuspegia. Kolektibotasuna eta elkartasuna. Gure arteko elkartasun sareak eraikitzen jarraitu behar dugu, esperientzien trukean sakonduz eta erasoen aurreko babesa antolatuz. Problematika berdina pairatzen dugu, kolektiboki zapalduak gara eta kolektibo gisa askatuko gara.

Aipaturiko erronka, zeregin eta planteamenduek guztion ekarpena beharko dute, parez pare dugun sistemak hortzak erakutsiko baitizkigu. Denon arteko elkarrekintzaz, nor bere eremutik borrokatuz egingo diogu aurre. **Gazteok argi dugu ez garela jaio sistemaren engranaje bat gehiago izateko. Ez garela jaio inoren morroi izateko eta hortzak erakusten badizkigute guk ere hortzak erakutsiko dizkiegu, ez dezala inork zalantzarik izan.** Eta bitartean burujabetzaren eskailerak igotzen joango gara, banan banan baina etenik gabe jada erabakia hartua baitugu, bagoaz!

BALANTZEA

Urteotako balantze orokorra, ofizialki eta modu integralean egiteke dugun arren, honatx, agerikoak diren zenbait gako:

- Gazte antolakundearen antolakuntza astuna. Gazte borrokak behardueneragin kortasunetik urrun egituraren funtzionamendua oso astuna eta geldoa da, oro har, borrokak dinamizatzeko tresna baino transmisioari gehiago erantzuten dio (burokratizazioa, bileritisa...). Bat-bateko erantzuna, azkartasuna, jendea aktibatzeke, ardurak zehaztu eta betetzeko, analisi azkarrak egiteko zailtasunak.
- Duela 3-4 urte zegoen errealitateak berehalako emaitzak lortzea ezinezko egin du. Gazte estrategiaren garapena nahiko genukeena baino geldoagoa izaten ari da. Alabaina oinarriak norabide egokian ezartzen ari dira (gazte mugimendua berpizten, gazte borrokaren paradigma berria ezartzen...).
- Belaunaldi berriak borrokara lotu dira, Ezker abertzalearen etorkizunari begira ezinbestekoa dena. Borrokaren katea ez da apurtu eta etorkizunari begira ere belaunaldi berriak borrokara batzeko bermea da gazte antolakundea.
- Ezker Abertzalearen barne bizitza “ez-osasuntsua” (talkak, estrategia orokorraren argitasun falta, mesfidantzak...) kasu askotan oztopo izan da, arreta benetan gazte estrategian ezartzea zaildu du eta ilusio galera izugarria eragin du.
- Oinarri militantean gazte strategiaren marko teorikoa, hausnarketak, militantzia kulturaren teorizazioak... barneratuta daudela esan genezake, alabaina, eguneroko praktika militantean ez da nahiko genukeen bezala islatzen. Teoria eta praktikaren arteko desoreka.
- Militantziaren prestigio eza. Egun militante izatea balio erantsia baino “marroi” bezala ikusten da. Esanguratsua da duela hiru urte (Ernai sortu zenean) 1200 militante izatetik egun 1000 militanten langa azpitik gaudela.
- Orokorrean militantzia gaztea, Gutxi gorabehera ernaiko militanten batz-besteko adina 21 urtekoa da. Ez dugu lortu gazte ziklo osoarentzat eskaintza erakargarria egitea.
- Nazio estrategian hutsunea: nazio ikuspegia oso mugatua eta erakundetzeko pausuak zehaztu gabe. Aitzina eta Ernaien arteko harremana ona izanik ere errealitate oso ezberdinak ditugu bi antolakundeok, Aitzinak zailtasun handiak izan ditu lan dinamika iraunkor bat izateko eta errealitate ezberdin horiek aintzat hartuta estrategia nazional bat garatzea gaur gaurkoz oso zaila da.
- Ikasle eta gazte estrategia uztartzeko arazoak. 2012ko udan emandako hausnarketak sortuko zen Gazte Antolakundearen gazte estrategia eta berregokitzen ari zen ikasle estrategia ez dugu jakin izan uztartzen. Egunerokoan modu koordinatuan jarduteko arazoak. Pasa den ikasturtetik hona arazo hauei erantzuteko barne mailako lana egiten dihardugu.